



## 2 FITXA: ... Nik ere erabiltzen dut, itsatsi egiten dut, sortu egiten dut...

Gaia	Helburu zehatzak	Denbora	Jarduera Mota
<b>Puntu Lila hedatzea</b>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Jakinaraztea nola <b>erabili</b> izan den orain arte Puntu Lila.</li> <li>2. Puntu Lila <b>erabiltzeko</b> proposamenak sustatzea</li> <li>3. Puntu Lila auzoko edo herriko eremu publikoetan erabiltzeko eta <b>hedatzeko</b> sormena sustatzea.</li> </ol>	<p>Gutxienez: 30 minutu</p> <p>Gehienez: arratsalde bat</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Puntu Lilaren erabileren proiektzioa</li> <li>- Puntu Lila kalean, eskolan, tabernetan eta herriko bestelako eremu publikoetan erabiltzeko era berriak sortzea.</li> </ul>
Xede-taldea	Lantzeko oinarrizko kontzeptuak	Beharrak	
<p>15-19 urteko neska-mutilentzat.</p> <p>20-25 urteko neska-mutilentzat (aldaerak)</p> <p>Talde bakoitzarentzat material bera da.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Indarkeria sexistaren aurka egotea adierazten duen <b>sinboloa</b> hedatzeko beharra, emakumeen, gizonen, gazteen, umeen atxikimendua lortzeko, horrelako indarkeriari zero tolerantzia izateko.</li> <li>- Plangintzak eta <b>konpromisoak</b> auzoko edo herriko eremu publikoetan Puntu Lilaren erabilera hedatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kanoi, ordenadore eramangarria, Puntu Lila erabiltzeko eskuliburua</li> <li>- Papera, arkatza, koloreak, bestelako materiala (estambrea, plastilina, koloretako kartulinak, botoiak...) eta irudimen handia</li> </ul>	

## Nola landu

- Orain arte nola erabili izan den Puntu Lila proiektatuko da (ikus Puntu Lila erabiltzeko eskuliburua)
- Partehartzaileei eskatuko zaie irudikatzen bakarka edo taldean, sinboloak izan ditzaken erabilera gehiago.

## Aldaerak

### **15-19 URTEKOEN TALDEAK:**

- Eskolan Puntu Lila erabiltzeko erak sortzea.
- Azaroaren 25ean Puntu Lila era kolektiboan erabiltzeko era sustatzea.
- Herrian Puntu Lila hedatzeko ideien lehiaketa bultzatzea.

### **20-25 URTEKOEN TALDEAK:**

- Puntu Lila mutilen eremu publikoetan erabiltzeko erak sortzea.
- Lan eremuetan Puntu Lila erabiltzea sustatzea.
- Herrian Puntu Lila hedatzeko ideien lehiaketa bultzatzea.

## Dinamika hobeto ateratzeko oharrak

Ez baztertu ideiarik, proposamen guztiak bultzatu. Ideiaren baterako baliabideren bat behar bada, esan taldekoei udal berdintasun sailera hurbiltzeko laguntza eske.